

**ARABAN ENPRESA BERRIAK SORTZEKO ETA FINKATZEKO PROGRAMA**  
**EKINTZAILTZA ARABAN 2024**

<b>Eskaerak aurkezteko epea (9.1. art.)</b>	Eskaerak aurkezteko epea 2024eko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2024eko martxoaren 1ean 14:00etan bukatuko da.		
<b>Jarduerak egiteko epea (6.2. eta 6.3 art.)</b>	Enpresa berriak sortzea: 2023ko irailaren 1etik 2024ko abenduaren 16ra. Enpresak sendotzea eta hedatzea: 2024ko urtarrilaren 1etik abenduaren 16ra.		
<b>Helburua (1 art.)</b>	Arabian enpresa berriak sor daitezen sustatzea eta enpresak sendotzeko eta hedatzeko prozesuetan laguntzea, Arabako produkzio-sarea modernizatzen, dibertsifikatzen eta lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten erakundeei diru-laguntzak emanez.		
<b>Erakunde onuradunak (4 art.)</b>	<b>Enpresa berriak (4.1.1 art.)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➢ Arabako pertsona fisikoak, enpresa-unitate berri bat sortzeko proiektua dutenak.</li> <li>➢ Arabako pertsona fisiko edo juridikoak, gehienez ere bi urteko antzinatasuna dutenak jarduera hasten denetik edo eskaera egiten den egunean eratu zirenetik.</li> <li>➢ Jarduera dibertsifikatu nahi duten Arabako pertsona juridikoak, enpresa-unitate berri bat sortzeko proiektu zehatz bat aurkeztuz.</li> <li>➢ Egoitza edo jarduera Arabatik kanpo duten pertsona fisiko edo juridikoak, lurraldean jarduerazentro bat lekuz aldatzen/ezartzen dutenak.</li> </ul>	
	<b>Sendotzea eta hedatzea (4.1.2 art.)</b>	Arabian jarduera-zentroa martxan duten pertsona fisiko edo juridikoak, azken lau urteetan (2018-2021) Araban Ekintzailtza programaren laguntzak jaso dituztenak enpresa berriak sortzeko fasean, eta gutxienez enplegu bat eta gehienez hamar dituztenak (sustatzaileak alde batera utzita).	
<b>Dirulaguntzak jaso dezaketen gastuak (5.3 art.)</b>	<b>Enpresa berriak (5.3.a art.)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkatu-azterketak eta/edo bideragarritasuna. Proiektuarekin zerikusia duten txosten, azterlan eta aholkularitza tekniko espezifikoak.</li> <li>• Prototipoak diseinatu eta eraikitzearen ondoriozko gastuak (muga: 10.000,00 €). Patenteak, homologazioak, erabilgarritasun-ereduak eta marka komertzialak eskatzeko, emateko eta erregistratzeko hasierako gastuak (muga: 10.000,00 €).</li> <li>• Jarduerarekin zuzenean lotutako berariazko ikastaro teknikoetara joatea (&lt; 350 ordu), betiere prestakuntza arautuan dagoen eskaintzaren barruan sartzen ez badira (3.000,00 €-ko muga).</li> <li>• Diruz lagun daitekeen proiektuari lotutako komunikazio-gastuak (20.000,00 €gehienez).</li> <li>• Lokala alokatzeko gastuak (muga: 10.000,00 €).</li> </ul>	
	<b>Sendotzea eta hedatzea (5.3.b art.)</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aholkularitza eta kanpo-aholkularitzako lanak, juridikoak barne.</li> <li>• Azterketa teknikoak.</li> <li>• Komunikazio-gastuak (10.000,00 €gehienez).</li> <li>• Kudeaketa hobetzeko prestakuntza (&lt; 350 ordu).</li> <li>• Ekoizpena eta lehiakortasuna handitzeko erosketa ibilgetua.</li> <li>• Teknologia edo negozioaren garatzailea kontratatzeko gastuak.</li> </ul>	
Gastu diruz lagungarriko zenbateko minimoa, 100,00 euro. Diru-laguntzako zenbateko minimoa, 1.500,00 euro.			
<b>Dirulaguntzen zenbatekoak (7. art.)</b>		<b>Dirulaguntzaren %</b>	<b>Diru-laguntzaren gehieneko muga</b>
	<b>Enpresa berriak</b>	<b>60%</b>	30.000,00 € (30.000€ maximo ibilgetu eskuratzetan)
	Pertsona fisiko onuraduna emakumea bada / Proiektuaren sustatzailea talde bat bada eta talde horren, gutxienez, erdiak emakumeak badira.	+5%	
	20.000 biztanle baino gutxiago dituen Arabako lurralde historikoko udalerrietan garatutako proiektuek.	+5%	
	<b>Kalifikazioa ≥ 80 puntu</b>	<b>80%</b>	<b>80.000,00 € (40.000€ maximo ibilgetu eskuratzetan)</b>
	<b>Sendotzea eta hedatzea</b>	<b>50%</b>	20.000,00 € (10.000€ maximo ibilgetu eskuratzetan)
<b>Araubide juridikoa</b>	Foru Gobernu Kontseiluaren 809/2023 Erabakia, abenduaren 12koa. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da (1. art.).		